# Bestelako Xedapenak

## ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

### 6770

AGINDUA, 2009ko abenduaren 10ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzen inguruko zenbait agindu aldatzeko dena.

Babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak (2008ko martxoaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 59. zenbakian argitaratua) 6. artikuluan arautzen ditu babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioak. Bertan xedatzen denez, prezioak kalkulatzeko etxebizitzaren edo eranskinaren azalera erabilgarriaren metro koadroa sailburuaren agindu bidez zehaztuko den zenbaki batekin bidertuko da, betiere etxebizitzaren motaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan duen kokapenaren arabera.

Arau hori garatzeko onartu zen babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioak zehazteari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko maiatzaren 15eko Agindua, eta 2008ko maiatzaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 100. zenbakian.

Une honetan, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila aztertzen ari da babespeko etxebizitzen gehienezko prezioari buruz indarrean dauden araudiak, gaur egungo errealitate sozial eta ekonomikora egokitzeko, hain zuzen.

Arautze hori 2010eko ekitaldiaren barruan egingo da, baina bitartean, garrantzi txikiagoko zenbait neurri hartu behar dira, egoerak orekatzeko eta abagune honetan bidegabeak liratekeen zirkunstantziak saihesteko.

Horrela bada, aldatu egin behar dira 2008ko maiatzaren 15eko Aginduaren I. eta II. eranskinak, antzerako ezaugarriak dituzten udalerrietan babespeko etxebizitzek salmentako gehienezko prezio bera izan dezaten. Bereizketa egiteko kontzeptu objektibo bat erabiliko da, biztanleen kopurua, hain zuzen. Horrela, 15.000 biztanletik gora dituzten udalerri guztiak I. eranskinean bilduko dira.

Prezioak automatikoki eguneratzeari buruzko 4. paragrafoa ezabatu egingo da, 39/2008 Dekretuko aurreikuspenekin bat ez datorrelako.

Bestalde, krisi ekonomikoa dela-eta, babes ofizialeko etxebizitza bat erosketa-erregimenean esleitu zaizkien pertsona askok uko egin behar izan diote langabezian daudelako eta ezin dutelako ordaindu.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

### 6770

ORDEN de 10 de diciembre de 2009, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, de modificación de diversas órdenes en materia de viviendas de protección oficial.

El Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 59, de 28 de marzo de 2008, regula en su artículo 6 los precios máximos de las viviendas de protección oficial, estableciendo que se calcularán multiplicando el metro cuadrado de superficie útil de la vivienda o anejo de que se trate por una cantidad a determinar mediante Orden del Consejero, en función del tipo de vivienda y de su ubicación en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En desarrollo de este precepto se aprobó la Orden de 15 de mayo de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre determinación de precios máximos de viviendas de protección oficial, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 100, de 28 de mayo de 2008.

Actualmente el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes está estudiando la normativa vigente respecto al la determinación de los precios de la vivienda de protección, con el fin de adecuarla a la realidad social y económica existente.

Esta regulación se producirá dentro del ejercicio 2010, pero entre tanto se produce, es necesario adoptar algunas medidas de menor calado, que ayudarán a equilibrar situaciones y a evitar circunstancias que en esta coyuntura resultan injustas.

En ese sentido se considera necesario modificar los anexos I y II de la Orden de 15 de mayo de 2008, para que municipios de similares características se correspondan con los mismos precios máximos de venta de viviendas protegidas, estableciéndose la división según un concepto objetivo como es el número de habitantes. Así se determina que todos los municipios de más de 15.000 habitantes pertenezcan al anexo I.

Asimismo se suprime el apartado 4, relativo a la actualización automática de los precios, que no se ajusta a las previsiones del Decreto 39/2008.

Por otra parte, como consecuencia de la crisis económica, muchas personas adjudicatarias de una vivienda de protección oficial en régimen de compra, se han visto obligadas a renunciar a ella por encon-

Uko egite horren ondorioz, pertsona horiek ezin dute parte hartu ondoko bi urteetan egingo diren esleipen-prozeduretan, sarbide-erregimen eta etxebizitza-mota bereko esleipen-prozeduretan, hain zuzen. Hala dago xedatuta babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 3.4 artikuluan. Agindu hori, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2008ko maiatzaren 12an (88. zenbakia) eta aipatutako 39/2008 Dekretuak 12. artikuluan xedatutakoa garatzeko. Logikoa denez, uko egite horiek ez dira aurkezten dituzten pertsonen borondatearen araberakoak eta ez dira zigortu behar. Beraz bada, aldatu beharra dago Agindu hori eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Agindua, etxebizitza eskatzaileen erregistroa arautzen duena (2008ko maiatzaren 12ko EHAA, 88. zenbakia). Horietako lehenengoa aldatu egiten da, era berean, 17. artikuluan aurkitutako disfuntzio bat zuzentzeko.

Ondorioz,

XEDATU DUT:

***1. artikulua***.– Babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioak zehazteari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko maiatzaren 15eko Aginduaren 2. artikulua aldatzea.

Ezabatu egiten da babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioak zehazteari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko maiatzaren 15eko Aginduaren 2. artikuluko 4. paragrafoa.

***2. artikulua.***– Babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioak zehazteari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko maiatzaren 15eko Aginduaren I. eranskina aldatzea.

Aldatu egiten da babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioak zehazteari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko maiatzaren 15eko Aginduaren I. eranskina. Honela geratuko da idatzita:

I. ERANSKINA

ARABA

Laudio

Vitoria-Gasteiz

BIZKAIA

Amorebieta-Etxano

Barakaldo

trarse en situación de desempleo y no poder satisfacer su precio. La renuncia impide a estas personas participar en los procedimientos de adjudicación que se celebren durante los dos años posteriores y se refieran al mismo régimen de acceso y a la misma tipología de vivienda. Así lo establece el artículo 3.4 de la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 88, de 12 de mayo de 2008, y dictada en desarrollo de lo dispuesto en el artículo 12 del citado Decreto 39/2008. Lógicamente, las renuncias de este tipo no obedecen a la voluntad de las personas que las formulan, por lo que no deben ser objeto de penalización. Para conseguirlo, es necesario modificar tanto esta Orden, como la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, reguladora del Registro de Solicitantes de Vivienda, que se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 88, de 12 de mayo de 2008. También se modifica la primera de ellas para corregir una disfunción detectada en su artículo 17.

En su virtud,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Modificación del artículo 2 de la Orden de 15 de mayo de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre determinación de precios máximos de viviendas de protección oficial.

Se suprime el párrafo 4 del artículo 2 de la Orden de 15 de mayo de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre determinación de precios máximos de viviendas de protección oficial.

***Artículo 2.***– Modificación del anexo I de la Orden de 15 de mayo de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre determinación de precios máximos de viviendas de protección oficial.

Se modifica el anexo I de la Orden de 15 de mayo de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre determinación de precios máximos de viviendas de protección oficial, que tendrá la siguiente redacción:

ANEXO I

ÁLAVA

Llodio

Vitoria-Gasteiz

BIZKAIA

Amorebieta-Etxano

Barakaldo

Basauri
Berango
Bermeo
Bilbao
Durango
Erandio
Ermua
Galdakao
Gernika-Lumo
Getxo
Leioa
Mungia
Portugalete
Santurtzi
Sestao
Sopelana

GIPUZKOA
Andoain
Arrasate
Astigarraga
Donostia-San Sebastián
Eibar
Errenteria
Hernani
Hondarribia
Irun
Lasarte - Oria
Lezo
Oiartzun
Pasaia
Tolosa
Zarautz

***3. artikulua.***– Babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioak zehazteari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko maiatzaren 15eko Aginduaren II. eranskina aldatzea.

Aldatu egiten da babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioak zehazteari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko maiatzaren 15eko Aginduaren II. eranskina. Honela geratuko da idatzita:

Basauri
Berango
Bermeo
Bilbao
Durango
Erandio
Ermua
Galdakao
Gernika-Lumo
Getxo
Leioa
Mungia
Portugalete
Santurtzi
Sestao
Sopelana

GIPUZKOA
Andoain
Mondragón
Astigarraga
Donostia-San Sebastián
Eibar
Errenteria
Hernani
Hondarribia
Irun
Lasarte-Oria
Lezo
Oiartzun
Pasaia
Tolosa
Zarautz

***Artículo 3.***– Modificación del anexo II de la Orden de 15 de mayo de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre determinación de precios máximos de viviendas de protección oficial.

Se modifica el anexo II de la Orden de 15 de mayo de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre determinación de precios máximos de viviendas de protección oficial, que tendrá la siguiente redacción:

II. ERANSKINA

ARABA
Amurrio
Agurain
Oyón-Oion

BIZKAIA
Abadiño
Abanto Zierbena
Alonsotegi
Arrankudiaga
Arrigorriaga
Bakio
Balmaseda
Barrika
Berriz
Derio
Elorrio
Etxebarri
Gorliz
Gueñes
Igorre
Iurreta
Larrabetzu
Lekeitio
Lemoa
Lemoiz
Lezama
Loiu
Markina-Xemein
Muskiz
Ondarroa
Urduña
Urtuella
Plentzia
Sondika
Ugao-Miraballes
Urduliz
Trapagaran
Zaldibar
Zalla
Zamudio
Zaratamo

ANEXO II

ÁLAVA
Amurrio
Salvatierra
Oyón-Oion

BIZKAIA
Abadiño
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena
Alonsotegi
Arrankudiaga
Arrigorriaga
Bakio
Balmaseda
Barrika
Berriz
Derio
Elorrio
Etxebarri
Gorliz
Güeñes
Igorre
Iurreta
Larrabetzu
Lekeitio
Lemoa
Lemoiz
Lezama
Loiu
Markina-Xemein
Muskiz
Ondarroa
Urduña-Orduña
Ortuella
Plentzia
Sondika
Ugao-Miraballes
Urduliz
Valle de Trápaga-Trapagaran
Zaldibar
Zalla
Zamudio
Zaratamo

Zeberio
Zierbena
Ziortza-Bolibar

GIPUZKOA
Aretxabaleta
Azkoitia
Azpeitia
Beasain
Bergara
Deba
Elgoibar
Eskoriatza
Getaria
Ibarra
Lazkao
Legazpi
Oñati
Ordizia
Orio
Soraluze-Placencia de las Armas
Urnieta
Urretxu
Usurbil
Villabona
Zestoa
Zizurkil
Zumaia
Zumarraga

***4. artikulua.***– Babes ofizialeko etxebizitzen esleipen-prozedurei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 4. artikulua aldatzea.

Aldatu egiten da babes ofizialeko etxebizitzen esleipen-prozedurari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 4. artikuluko 3. paragrafoa. Honela geratuko da idatzita:

«3.– Etxebizitza baten esleipendun izateari uko egiteak, ukatzen denetik bi urteko epean sarrera-erregimen bereko eta etxebizitza-tipologia bereko etorkizuneko prozeduretan parte hartzeko aukera ezabatuko du. Hala ere, honako uko egite hauek ez dira kontuan hartuko:

Zeberio
Zierbena
Ziortza-Bolibar

GIPUZKOA
Aretxabaleta
Azkoitia
Azpeitia
Beasain
Bergara
Deba
Elgoibar
Eskoriatza
Getaria
Ibarra
Lazkao
Legazpi
Oñati
Ordizia
Orio
Soraluze-Placencia de las Armas
Urnieta
Urretxu
Usurbil
Villabona
Zestoa
Zizurkil
Zumaia
Zumarraga

***Artículo 4.***– Modificación del artículo 4 de la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial.

Se modifica el apartado 3 del artículo 4 de la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial, que tendrá la siguiente redacción:

«3.– La renuncia a la adjudicación de una vivienda impedirá, durante un plazo de dos años desde la fecha de dicha renuncia, la participación en procedimientos posteriores referidos al mismo régimen de acceso y tipología de vivienda. No obstante, no se tendrán en cuenta las siguientes renuncias:

– Bizikidetza-unitatearen kide bakoitzeko 15 $m^2$ erabilgarriko ratioa baino azalera txikiagoa duen etxebizitza baten esleipena bada.

– Erosketa-erregimeneko esleipenetan, dena delako esleipen-prozeduran parte hartzeko konputagarriak diren lanaren etekinengatiko sarrerak izan dituzten pertsonak eta esleipena jakinarazteko unean langabezian aurkitzen direnak.»

***5. artikulua.***– Babes ofizialeko etxebizitzen esleipen-prozedurei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 17. artikulua aldatzea.

1.– Aldatu egiten da babes ofizialeko etxebizitzen esleipen-prozedurari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 17. artikuluko 2. paragrafoa. Honela geratuko da idatzita:

«2.– Dokumentazioa ez aurkeztea, kontratua adierazitako epean ez sinatzeak edo esleipenduna aurki ezin izateak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako metodoak amaitzen direnean, esleitutako etxeari uko egin zaiola ulertzea eragingo du eta dagokion lurralde ordezkariari ahalmena emango dio hutsik dagoen etxebizitzarako beste hautatu bat adierazteko, dagokion zerrendaren ordenari jarraiki.»

2.– Ezabatu egiten dira babes ofizialeko etxebizitzen esleipen-prozedurei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 17. artikuluko 3., 4., 5., 6. eta 7. paragrafoak.

***6. artikulua.***– Etxebizitza eskatzaileen erregistroa arautzen duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 4. artikulua aldatzea.

Aldatu egiten dira etxebizitza eskatzaileen erregistroa arautzen duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 4. artikuluko 5. eta 6. paragrafoak. Honela geratuko dira idatzita:

«5.– Bi etxebizitza-esleipeni esanbidez uko egitea edo etxebizitza bakar bati isilbidez uko egitea, betiere isilbidezko uko-egite hori dagoela aintzat hartuz, Administrazioak esleipen hori aurreikusitako bideetatik jakinarazteko betebeharra bete ondoren, esleipenduna aurkitu ez bada edo harekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan bada.

Erosketa-erregimeneko esleipenetan ez da etxebizitzari uko egitea aintzat hartuko, dena delako esleipen-prozeduran parte hartzeko konputagarriak

– En todo caso, cuando se trate de la adjudicación de una vivienda cuya superficie útil sea inferior a la ratio de 15 $m^2$ útiles por cada miembro de la unidad convivencial.

– En el caso de adjudicación en compra, cuando se trate de adjudicaciones realizadas a personas que, habiendo sido perceptoras de ingresos de trabajo computados para participar en el procedimiento de adjudicación de que se trate, estén en situación de desempleo en el momento en que se les notifica la adjudicación.»

***Artículo 5.***– Modificación del artículo 17 de la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial.

1.– Se modifica el apartado 2 del artículo 17 de la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial, que tendrá la siguiente redacción:

«2.– La falta de presentación de documentación, la no suscripción del contrato en el plazo señalado o la falta de localización del adjudicatario, agotados los métodos previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se entenderá como renuncia a la vivienda asignada y facultará al Delegado Territorial correspondiente a señalar un nuevo seleccionado para la vivienda vacante, siguiendo el orden de la lista correspondiente.»

2.– Se suprimen los apartados 3, 4, 5, 6 y 7 del artículo 17 de la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial.

***Artículo 6.***– Modificación del artículo 4 de la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, reguladora del Registro de Solicitantes de Vivienda.

Se modifican los apartados 5 y 6 del artículo 4 de la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, reguladora del Registro de Solicitantes de Vivienda, que tendrá la siguiente redacción:

«5.– La renuncia expresa a dos adjudicaciones de vivienda o la renuncia tácita a una única vivienda, entendiéndose que existe dicha renuncia tácita, cuando cumplida por la Administración su obligación de comunicar dicha adjudicación por los medios previstos, no se haya sido posible localizar o establecer comunicación con el adjudicatario.

No se tendrá en cuenta la renuncia a adjudicaciones de vivienda en régimen de compra cuando se trate de adjudicaciones realizadas a personas que,

diren lanaren etekinengatiko sarrerak izan dituzten pertsonenak, esleipena jakinarazteko unean langabezian aurkitzen diren pertsonenak, alegia.

6.– Etxebizitza-esleipen bakar bati uko egitea, eskatutako etxebizitza mota eta erregimen bakarra baldin bada. Ez dira kontuan hartuko aurreko ataleko bigarren paragrafoan aipatutako uko egiteak.»

AZKEN XEDAPENA.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 10a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

habiendo sido perceptoras de ingresos de trabajo computados para participar en el procedimiento de adjudicación de que se trate, estén en situación de desempleo en el momento en que se les notifica la adjudicación.

6.– La renuncia a una única adjudicación de vivienda, en el caso de ser el único tipo de vivienda y régimen solicitado. No serán tenidas sen cuenta las renuncias a que se refiere el segundo párrafo del apartado anterior.»

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de diciembre de 2009.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.